

# AMONA

Nire amonak 84 urte ditu. Bakarrik bizi da eta ondo moldatzen da egunerokoan, baina ni pendiente nago eta, batez ere, adi egoten naiz bere fakturei eta gainerako paperei.

Duela egun batzuk bisitan joan nintzaion eta ohe azpian kutxa handi bat ikusi nuen erdi ezkutatuta. Zer zen galdetu nion eta hasieran ez zidan esan nahi, baina azkenean "aitortu egin zuen". Esan zidan mutil bat etxera joan zitzaiola medikua zela esanez eta Osakidetza jendearen osasun-egoera kontrolatzeko kanpaina bat egiten ari zela. Ea minik zuen galdetu zion. Amonak baietz esan zion, noski. Ia mundu guztiak du zerbaiten mina eta gehiago 80 urte baino gehiago badituzu. Orduan, mutilak, oso jatorra zena amonaren hitzetan, esan zion bazuela tresna zoragarri bat min guztiak kenduko zizkiona. Amonak ez zion ezer erosi nahi eta alde egiteko eskatu zion, baina mutilak aparatu hori behar zuela konbentzitu zuen eta paper bat sinarazi zion.

Papera eskatu nion eta ia 4.000 euroko kontratua zela eta, gainera, finantzazio bat zuela ikusi nuenean zur eta lur geratu nintzen!! Oso urduri jarri nintzen eta ezin izan nuen ezer gehiago irakurri. Berehala deitu nuen Kontsumo Bulegora. Esan zidaten denda batetik kapon egindako erosketa zenez, 14 eguneko epea genuela atzera egiteko, hau da, kontratua bertan behera uzteko. Arazoa zen 14 egunak pasa zirela. Nere amona hain zegoen estututa, ez zidala esan nahi izan, eta paketea ikusi nuenerako beranduegi zen.

Kontsumo Bulegoaren arduradunak esan zidan, nolana ere, tramitatuko zutela, amonari egin zioten engainua kontuan hartuta. Bere izenean erreklamazioa bat aurkeztu nuen eta kontratua bidali nien posta elektronikoz. Bulegora joan beharrik ere ez nuen izan.

Handik egun gutxira, enpresak erosketa-kontratua bertan behera utzi zuela esateko deitu zidaten, eta maileguaren ezeztapena ere berretsi zuten. A zer lasaitasuna!! Eskerrak Kontsumo Bulegoan kontsultatu ahal izan nuela eta erreklamazioa izapidetu zutela, atzera egiteko epetik kanpo ego narren. Izugarri eskertzen diet.